

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

3353

96/2023 DEKRETUA, ekainaren 27koa, Vitoria-Gasteizko barruti judizialari dagozkion Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako lanpostuen zerrendak onartzen dituen urriaren 23ko 224/2012 Dekretua aldatzen duena.

Lanpostuen zerrendak Justizia Administrazioaren barne-egiturak antolatzeko tresna dira, eta, beraz, indarrean dauden prozeduren arabera izapidetu diren eta aldeko ebazpena jaso duten aldaketak sartu behar dira aldizka, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 521., 522. eta 523. artikuluetan aurreikusitakoa betetze aldera.

Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 521. artikuluan ezarritakoaren arabera, langileak bulego judizialen egitura osatzen duten unitateetan antolatzeko eta integratzeko, onartzen diren lanpostuen zerrendak erabiliko dira. Zerrenda horiek, nolanahi ere, publikoak izango dira.

Aipatutako Lege Organikoaren 522. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskumenak bereganatuta dituzten autonomia-erkidegoek hasierako onarpena emango diete beren jardun-eremuari dagozkion bulego judizialeko lanpostuak antolatzen dituzten lanpostu-zerrendei, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak txostena egin eta ordezkaritza handieneko sindikatuarekin negoziatu ondoren.

Lege horren 523. artikuluen bigarren paragrafoak ezartzen duen bezala, lanpostuen hasierako zerrendetan gertatzen diren aldaketek kontuan hartu beharko dituzte lege honetan efektiboak birbanatzeko eta berrantolatzeko jasotako printzipioak.

Hainbat dekreturen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Justizia Administrazioako langileen lanpostu-zerrendak onartu dira. Besteak beste, urriaren 23ko 224/2012 Dekretua aipatu behar da, Vitoria-Gasteizko barruti judizialari dagozkion Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako lanpostuen zerrendak onartzen dituenak.

2022ko azaroaren 16an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen azaroaren 15eko 954/2022 Errege Dekretua, 2022ko programazioari dagozkion hirurogeita hamar unitate judizial sortzeko eta planta judiziala egokitzeko. Horien artean, Euskal Autonomia Erkidegoan unitate berri bat sartu zen: Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 4. Epaitegia.

Dekretu honen xedea, beraz, lanpostu berriak goian aipatutako dekretuaren bidez onartutako lanpostuen zerrendan sartzea da.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarilaren 19ko 12/2021 Dekretuarekin bat etorriz, Justizia Administrazioako Zuzendaritzak Vitoria-Gasteizko barruti judizialari dagozkion lanpostuen zerrenda aldatu du.

Horrenbestez, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarilaren 19ko 12/2021 Dekretuaren 4. Artikuluak xedatzen duen bezala, eta Gobernu Kontseiluak 2023ko ekainaren 27an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— Dekretu honen eranskinean aurreikusitako baldintzetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako Vitoria-Gasteizko barruti judizialeko lanpostuen zerrendak onartzen dituen urriaren 23ko 224/2012 Dekretuaren bidez onartutako lanpostuen zerrendetan egindako aldaketak onartzea.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Dekretu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko ekainaren 27an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
NEREA MELGOSA VEGA.

EKAINAREN 27KO 96/2023 DEKRETUAREN ERANSKINA

I. ERANSKINA: ALDAKETEN ZERRENDA

ARABA

Aldaketa mota: Sorrera

Saila: BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKAK

Zentro kudeatzailea: JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARITZA

Destinoko zentroa: ZUZENEKO LAGUNTZA EMATEKO UNITATE PROZESALAK

Udalerria: VITORIA-GASTEIZ

Aldaketa mota	Lanpostua	Dotazioa	Lanpostuaren izena	Lanpostu mota	Udalerria	Betetzeko era	Taldea / Azpitalea	Kidegoa	Titulazio akademikoa	Berriazko jakintzak	Dedikazioa	Hizkuntza-eskakizuna	Hizkuntza-berezitasunaren data	Esperientzia	Lanpostuaren osagarri orokorra	Berriazko osagarria	Oharrak
Sorrera	480024	4	Adm. Auzien ZULUPeko P.A. Kudeatzailea	G	Vitoria-Gasteiz	LO	A2	Prozesu eta Administrazio Kudeaketa	Diplomatura		% 100				4.077,12	10.641,60	
Sorrera	580027	6	Adm. Auzien ZULUPeko P.A. Izapidegilea	G	Vitoria-Gasteiz	LO	C1	Prozesu eta Administrazio Izapidetza	Batxilerra edo baliokidea		% 100				3.466,32	7.857,12	
Sorrera	580027	7	Adm. Auzien ZULUPeko P.A. Izapidegilea	G	Vitoria-Gasteiz	LO	C1	Prozesu eta Administrazio Izapidetza	Batxilerra edo baliokidea		% 100				3.466,32	7.857,12	